

GARIZUMA BIZIA

1

Sarri entzun ohi dogu:
“hartu edo itzi,
kunplimentu gitxi”;
ezer ez egiteko
hobe egon ixi.
Hitz ederrez esanda,
hamar mila pitxi,
baina praktikan ezin
erdia jaritxi;
bada zer aldaturik
joko ta eritxi.

2

Garizuman kristauok
badogu ohitura
-ekarri burura-
“egi santuak” entzun
betiko modura.
Pekatzuz damututa
joan sakramentura,
pausoak zuzenduaz
behar dan lekura;
Jaunak lagundu behar
ta norberak gura.

3

Hausterre gainean da,
-hautsaren eguna-
gogoan doguna;
hauts apur bat buruan
ipinten jakuna.
Hor harrokeria ta
hor joko lizuna,
Azkenerako dana
hutsa ta iluna;
zuzendu nahi badogu
horra Garizuma.

4

Jesus deika daukagu
hortxe kurutzean,
entzun bihotzean:
batez be Garizuma
urtero heltzean.
Gugaitik zenbat egin
dauan oroitzean,
ta zenbat maite gaitun
une bakoitzean...
Ez ahaztu zintzo dala
betiko hitzean.

5

Garizuman ohi datoz
bijii ta barau,
sardina makailau...
Penitentzi honek ni
ssko poztuten nau.
Itzi gorroto, guzur,
nasaikeri, birau,
alkari lagundu ta
arren, ez ernegau;
penitentzi-modu hau
Jaunak nahiago dau.

6

Hortxe dakagu beti
zabalik atea,
osasan-bidea;
aukera askatzeko
esklabu-katea.
Ez da nahiko erdizka
baietz esatea,
goi laguntza behar da
ta borondatea;
oraingoan benetan
da, Jesus maitea!



A. Martzel